

ZARAUTZ.-Erdi Arora doan igogailua

Zientzia fikziozko filmetan denboraren makinak agertzen dira batzutan. Bestetan, Delorean izeneko auto bizkorrek etorkizunera bidaiatzen dute, eta gaur egun, zarautzarrek sortutako musika dantzagarriek keinu egiten diote berari. Hori guztia jakinda, ez da zaila izango iraganera doan igogailua irudikatzea, mendeetan barrena jaisten den igogailua, hain zuzen ere.

Zientzia fikziotik errealitatera jauzi eginda, antzeko bitxikeria bat gertatu da orain dela gutxi Zarauzko Alde Zaharrean. Kale Nagusiko lehenbiziko eskaratzean igogailua jartzeko lanak egiten hasi ziren, eta Erdi Aroko hilobiak topatu zituzten bertan. Etorkizuneko hobekuntzen bidean, iraganarekin egin dute topo.

Bereziki zaindutako eremua

Aurkikuntza hau arkeologo baten laguntzarekin egin dute. Zarauzko Arte eta Historia Museoko zuzendari Juanjo Aranburuk azaldu duenez, ia herri guztietan daude balizko interes arkeologikoa izan dezaketen gunek. Eremu horietan oraindik ez dute aztarna zehatzik topatu, baina kokalekua kontuan hartuta intereseko gune izendatzen dituzte eta edozein lan edo berrikuntza egin ahal izateko arkeologia protokoloa bete behar izaten dute.

Aranbururen esanetan, normalki herrietako alde zaharrak izendatzen dituzte arkeologia interesa duten eremu, eta eliza inguruetako lurak ere multzo horretan sartzen ditu. Kasu honetan, Kale Nagusiko hasierak bi eremuak hartzen ditu, batetik Alde Zaharrean dagoelako, eta bestetik, parrokiaren ondoan dagoelako.

Gisa honetako toki batean, edonolako lanak egiteko lurzorua zulatu nahi duenak arkeologo bat kontratatu beharra dauka. Kale Nagusiko igogailua jartzeko lanekin ere halaxe egin zuten eta, zuloa egin zutenean, Erdi Aroko bi hilobi topatu zituzten.

X. eta XIII. mendeen artekoak

Metro bat eta 60 zentimetroko sakoneran topatu zituzten bi hilobi hauek, eta orain arte parrokia inguruan aurkitutako beste hilobiekin alderatuta, X. eta XIII. mendeen artekoak direla ikusi dute, sakonera beretsuan baitaude. Hilobi hauek errepide ondoan daude, eta logikaren arabera, beste aldean aurkitutako hilobi multzoaren jarraipena dira.

Parrokian egindako aztarnetan ikusi dugu garai desberdinetako hiru eliza daudela, elkarren gainean eginda. Mende haietan, elizatik kanpora ehorzten ziren gorpuak.

Teoria asko egin daitezke, baina hipotesi batzuek diotenez, klase sozialen arabera elizatik gertuago edo urrutiago lurperatzen zituzten, eta hauek ez daude hain gertu, dio Aranburuk.

Dena den, ondoriorik nagusiena beste bat izan da: lurperatzeko eremua uste zutena baino zabalagoa da eta horrek garai bateko biztanleria sute baino jendetsuagoa zela esan nahi du.

Igogailua egiteko hilobiak estali egingo dituzte berriz ere. Bizilagunek, ordea, botoia sakatzen duten bakoitzean, denboran bidaiatzen ari direla pentsa dezakete.

Xabi Aizpurua Ugarte